



2002/04/23ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)**2002ko martxoan**

BIDAIARIEN SARRERAK %26 ETA GAUALDIAK %31 IGO ZIREN 2002KO MARTXOAN

Aurten Aste Santua eta Makina-Tresnaren Biurtekoa martxoan ospatu izanak azaltzen ditu datu horiek neurri handi batean

2002ko martxoan, 129.734 bidaiari-sarrera erroldatu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hil berean baino %26 gehiago. Igoera horrek 27.000 sarreratik gorako urte arteko gehikuntza ekarri du. Bidaiarien sarrerek aurreko urteko datuak gainditu dituzte hiru herrialdeetan, baina haien intentsitatea ez da berdina izan: Araban eta Bizkaian %15 eta %19 igo dira, hurrenez hurren; Gipuzkoan, aldiz, hazkunde handiagoa lortu zuten, %40koa.

Estatutik datozen bisitarien sarrerek %29ko gehikuntza lortu dute Euskal AE osoan; atzerriko bidaiarien kopurua, berriz, %18 hazi da. Bi talde horiek nabarmen igo dira Araban eta Gipuzkoan. Bizkaian, aldiz, atzerriko bidaiarien kopuruaren igoera txikiagoa izan da (%4).

Estatutik datozen bidaiarien artean, igo egin dira Katalunia eta Madrildik datozenak, bai eta Euskal AEtik beretik datozenak era, nagusiki; Gaztela eta Leondik datozenek baino ez dute murriztu presentzia. Atzerriko bidaiarien artean, igo egin dira Frantzia, Alemania eta Portugaldik datozenak; Italiatik eta AEB-Kanadatik datozenenak, aldiz, jaitsi egin dira.

2002ko martxoan izandako gaualdiak 243.861ra iritsi dira, hau da, aurreko urteko aldi berean baino ia 57.000 gehiago. Kopuru horrek %31ko igoera ekarri du ehuneko-balioetan. Egindako gaualdien kopuruak hazkundeak izan ditu Araban (%11), eta Bizkaian (%23), eta hazkunde oso handiak Gipuzkoan, %51. Izan ere, bidaiarien gehikuntza eta bidaiarien batez besteko egonaldia handiagoak izan dira herrialde horretan.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupena zertxobait luzatu da 2002ko martxoan, eta joan den urteko 1,81 egunetik azken urte honetako 1,88 egunera pasa da. Batez besteko egonaldia zertxobait jaitsi da

Arabian (1,86 egunetik 1,81era), eta horrek azaltzen du zergatik bidaiarien sarrerak gualdiak baino gutxiago igo diren herrialde horretan. Bizkaian eta Gipuzkoan kontrakoa gertatzen da: bidaiarien sarrerak nabarmen igo dira, baina egindako gualdiak gehiago igo dira, besteen aldean.

Betetze-maila hobetu egin da, plazako (%23) zein gelako (%13), Euskal AE osoan. Gipuzkoako hotel-establezimenduek hobetu dute gehien betetze-maila urte arteko aldian (%40 plazako eta %22 gelako); gehikuntzarik txikienak Arabakoek lortu dituzte (%3 plazako eta %4 gelako), eta Bizkaikoek tarteko toki bat betetzen dute.

Nekazalturismoa: gualdiak (%99) eta bidaiarien sarrerak (%46) igo dira

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 7.676 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2002ko martxoan, aurreko urtean baino %46 gehiago, eta aldakuntzarik handiena Araban izan da (%70). Gipuzkoa (%43) eta Bizkaia (%38) ere hazkunde handiak lortu dituzte.

Egindako gualdiak 17.792ra iritsi dira, hau da, 2001eko martxoan baino %99 gehiago. Gualdien gehikuntzak hiru herrialdeetan gertatu dira. Arabako igoera nabarmentzen da (%153), baina Gipuzkoako (%92) eta Bizkaiko (%85) hazkundeak ere garrantzitsuak izan dira.

Argibide gehiagorako, deitu hona:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel:+34 945 01 75 00 Fax:+34 945 01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel:+34-945-01 75 06 Fax:+34-945-01 75 01 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA/ALAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
2002/03	%	2001/03	%	D%		2002/03	%	2001/03	%	D%		2002/03	%	2001/03	%	D%		2002/03	%	2001/03	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERA	129.734	100	102.948	100	26	23.926	100	20.884	100	15	49.712	100	41.930	100	19	56.096	100	40.134	100	40
Estatukoak	99.469	77	77.287	75	29	19.645	82	17.401	83	13	36.326	73	29.087	69	25	43.498	78	30.799	77	41
Atzerrikoak	30.265	23	25.661	25	18	4.281	18	3.483	17	23	13.386	27	12.843	31	4	12.598	22	9.335	23	35
GAUALDIAK	243.861	100	186.192	100	31	43.192	100	38.750	100	11	97.987	100	79.424	100	23	102.682	100	68.018	100	51
Estatukoak	184.640	76	135.364	73	36	36.227	84	32.249	83	12	68.315	70	51.523	65	33	80.098	78	51.592	76	55
Atzerrikoak	59.221	24	50.828	27	17	6.965	16	6.501	17	7	29.672	30	27.901	35	6	22.584	22	16.426	24	37
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,88		1,81		4	1,81		1,86		-3	1,97		1,89		4	1,83		1,69		8
PLAZAKO BETETZE MAILA	46,57		38,01		23	50,41		48,92		3	46,65		39,92		17	45,05		32,13		40

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARIEN SARRERA	7.686	100	5.277	100	46	1.474	100	867	100	70	2.602	100	1.884	100	38	3.610	100	2.526	100	43
Estatukoak	7.275	95	5.014	95	45	1.444	98	825	95	75	2.437	94	1.838	98	33	3.394	94	2.351	93	44
Atzerrikoak	411	5	263	5	56	30	2	42	5	-29	165	6	46	2	259	216	6	175	7	23
GAUALDIAK	17.792	100	8.926	100	99	3.530	100	1.393	100	153	6.310	100	3.402	100	85	7.952	100	4.131	100	92
Estatukoak	16.639	94	8.246	92	102	3.383	96	1.281	92	164	5.714	91	3.149	93	81	7.542	95	3.816	92	98
Atzerrikoak	1.153	6	680	8	70	147	4	112	8	31	596	9	253	7	136	410	5	315	8	30
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,31		1,69		37	2,39		1,61		48	2,43		1,81		34	2,20		1,64		34
PLAZAKO BETETZE MAILA	28,09		15,11		86	30,28		13,06		132	30,98		19,09		62	25,40		13,52		88

Iturria: EUSTAT